

Manex Lanatua

*Ahatsa-
Altzieta-
Bazkazane,
Nafarroa
Beherea (1948)*

Aurkibidea

Biografia



Ahatsan sortua. Aita Ezterenzubikoa zuen eta ama, berriz, Eiheralarrekkoa. 19 urterekin Ameriketara joan zen bost urte han igarotzeko asmoz, baina bi urteren buruan aspertu eta itzuli egin zen. Baratzean lan egitea gustuko izan du eta eztigilea ere bada. Euskaltzalea eta idazlea.

Zintak

AHA-001

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2015-02-10
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Artzelus, Alex
- **Emalea:** Artzelus, Alex

AHA-002

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2015-02-10
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Artzelus, Alex
- **Emalea:** Artzelus, Alex

Pasarteak

1. Ameriketara lanera

- **Erref:** AHA-001/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:00. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

19 urtetan Ameriketara joan zen sos puxka bat egin asmoz, baina bi urte eta erdi igarota aspertu eta itzuli zen. Familiako asko joan ziren hara.

2. Deituraren jatorria

- **Erref:** AHA-001/003
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

"Granade" zuten deitura Ameriketan ehortzi zituzten bere senide batzuek. Bere ustez, abizen hori Espainiatik ihesi etorri ziren musulmandarrengandik dator, haien sorlekuaren oroimenez.

3. Ameriketako bizia I

- **Erref:** AHA-001/004
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:04:18. **Bukatu:** 00:07:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Oso interesgarria zela iruditzen zaio. 1966an Luther king hil zuten eta ondoren Kennedy. Hippie mugimendua ere orduan gertatu zen, eta baita Vietnam-eko gerla ere. Mugimendu kultural handia gertatu zen. Euskaldunak ez ziren batere interesatzen baina bera eta beste batzuk ordea, bai.

4. Ameriketako bizia II

- **Erref:** AHA-001/005
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:07:12. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Partitzeko bezperetan iratze epaiten ari zen eta bi egunen buruan Los Angelesen zen. Izugarrizko jauzia izan zen. Okindegi batean hasi zen lanean bertan 8 orduz, eta oso arrotza zen hori beretzat. Ez zitzaion hango hipokresia gustatu, eta pentsaketak egiteko apaiz-etxe batean sartu nahi zuen. Horretarako Euskal Herrira itzuli zen.

5. Apaiz ikasketak Bordelen

- **Erref:** AHA-001/006
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:10:34. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bordeleko jende helduentzako apaiztegi batean sartu zen. Filosofia, Soziologia eta biblia ikasi zituen, besteak beste. Apaiz ikasketen bitartez, unibertsitate batean ikas zitekeen jakintza erdiesteko posibilitatea zegoen. Pedagogia handia zuten apaizek.

6. Euskal Herriko arazoaren irtenbidearen alde borrokan

- **Erref:** AHA-001/007
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:16:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1974ean apaiztegitik atera zen. Orduan Euskal Herriko egoeraz konprometitu zen. Baionako eliz nagusian baziren gose greba egiten ari zirenak. Euskal Herriko eskubideen alde elizak ezer ere egiten ez zuela eta, eskutitz bat idatzi zien Baionako apzpikuari, Donostiakoari, Etxegarai ezpeletarrari, eta Hego

Ameriketari ari zen Don Hélder Cámara-ri. Frantzian langile borrokan ari zen apaiz batek baino ez zion erantzun

7. Ospitalean langile-gizarteaz pentsaketan

- **Erref:** AHA-001/008
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:16:31. **Bukatu:** 00:19:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Artzain sartu zen, baina istripu bat izan eta Ospitalez ospitale ibili zen. Han Ivan Illich filosofoaren lanak irakurri zituen. Hark ospitalearen lana, produktibitateak Aurrera jarraitzeko tresna moduan ikusten zuen.

8. Garazi eskualdearen aldaketa laborantxan

- **Erref:** AHA-001/009
- **Iraupena:** 0:03:59. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Laborantxa egiteko manera aldatu egin da. Lehen naturaren errespetua zen, eta gerlatik landa Plan Marshall-aren eraginez, Ameriketako lanerako moldea etorri zen, laborantxa industrial. Horrek ere baditu alde txarrak, dena pozoindu baita. Bada orain laborantxa biologikoaz interesatua denik.

9. Laborantxak hartu behar lukeen bidea etorkizunean

- **Erref:** AHA-001/010
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:26:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Laborantxa ekologikoa indarra hartzen ari da, baina hori molde zaharreko laborantxa baino ez da. Ez da gibelera egitea, hartua dugun jakintza eta ikasketen bitartez, egoeraz ohartu eta modu jasangarrian Aurrera egitea baizik.

10. Ligatzeko guneak Donibane Garazin

- **Erref:** AHA-001/011
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:47. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Donibane Garazin neskak mutilen beha jartzen ziren zubian. Bazen bizia herrian.

11. Orbaitzetako gizonaren istorioa

- **Erref:** AHA-001/012
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:28:42. **Bukatu:** 00:29:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Gazte zelarik Orbaitzetako gizon bat ezagutu zuen. Oso euskara ederra zuela oroitzen da. Gaur egun, inork ez du euskara mintzatzen han.

12. Haur denboran gutxirekin pozik

- **Erref:** AHA-001/013
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:31:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Oso gutxirekin konformatzen ziren bere haur denboran. Panpinak arreba zaharrenarengandik gazteenarengana pasatzen ziren. Eguberrian ere laranja bat oparitzat izatea animalekoa zen beraientzat.

13. Garazi eskualdearen aldaketa euskarari dagokionez

- **Erref:** AHA-001/014
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Jende guzti-guztiak mintzo ziren euskaraz. Bakar batzuk baziren kanpotik etorriak ez zekitenak, baina oso gutxi ziren eta ez zuten harremanik eurekin. Gaur egunean, euskaldunak gutxiengoa dira.

14. Euskara galtzearen arrazoiak

- **Erref:** AHA-001/015
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:36:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Kolonialismoa da euskara desagertarazi duena. Bera ere oroitzen da "Euskalduna naiz, zozoa naiz" idatziaz arbelean. Arbel hori bizkarrean hartu eta inguruan zebiltzen langile euskaldun batzuen aurretik pasatzera bortxatua izan zen. Alta, irakaslea euskalduna zen. Lotsa sortarazi dute euskaldun izateagatik. Badira oraindik frantsesa euskararen oinarrituta mintzatzen duten jendeak.

15. Elizaren jarrera euskararekiko

- **Erref:** AHA-001/016
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:36:21. **Bukatu:** 00:38:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Apaizek gehiago egin zuten euskararen alde. Berak euskara idatzita ikusi zuen lehenbiziko aldia katiximan izan zen. Elizaren eta errepublikaren artean gatazka zen eta beraz eskolaren eta elizaren jarrera oso desberdina zen euskararekiko.</p>

16. Eskolaren eragina adinekoenengan

- **Erref:** AHA-001/017
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:38:37. **Bukatu:** 00:40:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Lehenengoak gutxi ibiltzen ziren eskolan, bi urte baino ez, eta beraz ez ziren hainbeste frantsestu. Morroi joaten ziren 12 urtetarako. bere aitak armadara joan zelarik ez zekien frantses mikorik.</p>

Transkripzioa

- Biziki sufritu dut e, biziki sufritu dut.

- Gero, bon, ene irudipen bat da azken batean ez? Eskola betidanik izan da eta zien aintzinekoek ere eskola hori pairatu dute, eskola horren ba irakaspen frantses hori, ez?

- Ba bena gutiago, iruditzen zat ba ba ba, aita ibilia zen... aita ibilia zen bi urte bakarrik, ibili zan bi urtez eskolan. Bi urtez, ezen lana bazen, familiak haundiak eta lanak baziren. Ta behar zen lehenik... lehenengo etxeko lanetaz eta arduratu. Ta hamabi urtetan jada mutil zen aita. Itzain eta sartzen tuzten eta itzaina zen bideak eta gidatzen zituen norbait eta. Eta edo, zerrizain edo ardizain edo... hor juaiten ziren ezen familia handiak baitziren. Eta sartzen zituzten auzo-etxetan, jatekorik eta ez baitzen aski. Zonbait aldiz bazien hamabi hamahiru ha, zonbait aldiz, hala, normalki familiak sei-zazpi haur beren baziren gutienez. Ta ordian jateko puxka batean truk hori ta haurrak sartzen zituzten auzo-etxetan. Eta orduan

eskolan guti ibiliak zien ba aita ta ba ama. Ta ez zuten eskuara... ez zuten frantsesa armadara joan zelarik aitak konatzen zuen, ez zuen deus ulertzen e!

17. Semeak amari galdetua

- **Erref:** AHA-001/018
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:40:08. **Bukatu:** 00:42:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bere amak ez zuen nazional agiririk lehen. Hori jakinik berak galdetu zion ia zer zen, frantsesa ala euskalduna, eta amak ez zekiela erantzun zion. Lehengoek ez zuten nortasunaren kontzientziarik. Egoera hortaz baliatu ziren frantsesak euren identitatea inposatzeko.

18. Kolonialismoa Frantzian eta Espainian

- **Erref:** AHA-001/019
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:42:25. **Bukatu:** 00:44:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Espainiolak ere kolonialistak izan dira, eta bortitzagoak. Frantsesek psikologia eta goxotasun gehiago erabili dute euren zereginerako. Alta, zenbait lekutan ere bortitza izan da, esaterako Afrikan

19. Arabiar munduari interesatua I

- **Erref:** AHA-002/001
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:49

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

Laburpena:

Orain frantsesez idazten ari da frantses giroko jendea hunkitzeko eta arabiar munduari lotzeko. Euskaldunek arabiarrenganako hurbiltasuna nola bizi izan duten jakin nahi du.

20. Arabiar munduari interesatua II

- **Erref:** AHA-002/003
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:06:17

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

Laburpena:

Ez da arabiarren eta euskaldunen arteko harremanari buruz ez da ezer ere idatzi. Hori ikertzeko arabiarrez jakitea beharrezkoa dela ikusirik, ikasteari ekin dio. Olerkia ere zibilizazio horri oso lotuta dago, eta horrek ere interesa pizten dio. Lehen medikuak arabiarrek ziren, baina beste diziplina ugaritan ere jakitunak ziren. Jakintza orokorra oso garrantzitsua dela uste du. Afrika iparraldekoak sasoi batean bereberrak ziren. Yemendarrak dira lehen arabiarrek. K.a. 10000 urtekoak dira aztarnarik zaharrenak eta espainia hegoaldean ere aurkitu izan dira.

21. Olerkia eta arabiar zibilizazioa

- **Erref:** AHA-002/004
- **Iraupena:** 0:04:33. **Hasi:** 00:06:17. **Bukatu:** 00:10:50

Gaia(k):

- Aisia » Kultura

Laburpena:

Olerkiari dagokionez, berdintasun handiak daude kultura semitikoaren eta euskaldunen artean. Ber elementuei buruz hitz egiten da, bietan baita artzaintza oinarri. Islamismoa sartu aitzin ilargiak edota izarrek berebiziko indarra zuten haien kulturean. Hizkuntza zen haien aberastasun bakarra eta berebiziko garrantzia ematen diote.

22. Tirabirak bai arabiarren eta bai euskaldunean artean ere

- **Erref:** AHA-002/005
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:15:03

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Familia leinuak haientzat enbor beretik zetozen. Zenbat eta enborretik hurbilago egon, leinuek garrantzi gehiago zuten, eta eztabaidak izaten zituzten. Euskaldunen artean ere baziren aharrek, esaterako Donazarreko mizpira feria pasatu eta gizon batek galdegin zion beste bati ia jende hiltzerik izan zen. Ezezkoa entzunda galdera egin zuenak feria txarra izan zela iritzi zion.

23. Hitzaren garrantzia arabiarrengan

- **Erref:** AHA-002/006
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:16:42

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura

Laburpena:

Heriotzek sortzen zituzten gatazkak ekiditeko bertso lehiaketak egiten

zituzten. Bertsozik ederrena egiten zuena ateratzen zen irabazle. Hitzak beraz, izugarrizko garrantzia zuen arabiarrentzat, baina baita euskaldunentzat ere.

24. Zurgintza

- **Erref:** AHA-002/007
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:18:46

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Altzarigintzan aritu izan da. Zura olerkia bezala da beretzat, izan ere marrazkiak irakur lekizkioke.

25. Jabetzaren garrantzia euskaldunengan

- **Erref:** AHA-002/008
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:18:46. **Bukatu:** 00:21:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

Garrantzi gehieneko jendeak jabe handiak ziren, eta horiek ziren gorteetan bozkatzeko aukera zutenak. Apaizek sartu zituzten ideia horiek. Lehenago herri-lurrak zirenak hala pribatu bilakatu ziren

26. Eztigintza

- **Erref:** AHA-002/009
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:24:03

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Eurek ez zuten eremu handirik, eta beraz, erleekin lanean hasi zen ezkondu eta. Ingurumenaren eta denboraren beharraren kontzientzia hartu du hala. Beste denbora batean bizitzen ikasi du, sosaren egiteko denboratik kanpo.

27. Denboraren kontzeptua

- **Erref:** AHA-002/010
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:27:11

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Gaur egun jendea sosaren egiteko denboraren barruan bizi da. Berak denboraren beste kontzepzio bat du, anakronikoa da, eta bizitzeko, lanerako eta maitatzeko hartzen du denbora. Leku pobreetako zibilizazioek duten denboraren ikuspegiarekin identifikatzen da, naturak agintzen diguna. Gaur egun hortik urruntzen ari gara. Denbora mota horretan kokatzen du olerkia eta eztigintza

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-06-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com